

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

“Femeninoan bultzatu” programaren bigarren edizioa, Nafarroako enpresa-ehunean emakumeen zuzendaritza-karrera bultzatzeko programa

NL-NEZek eta NIEk antolatu dute ikastaroa, eta izena martxoaren 11tik (astelehena) martxoaren 22ra bitarte eman daiteke

Ostirala, 2019.eko martxoak 8

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NL-NEZ), Eskubide Sozialetako Departamentuaren mendeko erakundeak, eta Nafarroako Industria Elkartek (NIE) "[Femeninoan bultzatu](#)" programaren bigarren edizioa atera dute; hau da, haien erakundeetan goratu berri diren edo goratuko diren emakumei eta Nafarroan, erantzukizun-postuetan emakume profesionalen aldeko apustua egin nahi duten enpresei zuzendua. Izena emateko epea astelehenean, martxoaren 11n hasten da eta martxoaren 22an amaitu.

Programaren bitartez, NL-NEZen eta NIEren asmoa da Nafarroako enpresetan erantzukizun-postuetan emakume gehiagok parte hartzea, eta emakumeak eta gizarteak oro har dibertsitate handiagoa izatea erakundeetan erabaki estrategikoak hartzerakoan. Horretarako, ikastaroan, parte-hartzaileei erakutsiko zaie haien erakundea eta lan-taldeak arrakastarekin zuzentzen.

Iaz bezala, edizio hau NIEren egoitzan egingo da, eta [zortzi saio](#) burutuko dira martxoaren 26tik maiatzaren 16ra bitartean.

Martxoaren 26an, apirilaren 2an eta 16an eta maiatzaren 7an, parte-hartzaileek eta irakasleek gaitasun profesionalen eta lidergo femeninoaren trebakuntza jorratuko dute. Apirilaren 4an eta 11n, taldeko entrenamendu eta laguntza eskainiko zaie bertaratuei, haien ekintza-planetan proposaturiko erronkei aurre egiteko. Horrez gain, maiatzaren 16an, ostegunean, gosari networkinga egingo dute, enpresaren barnean karrera profesionalak aurkezten dien erronkaz eta proiektuaren barruko esperientziak hitz egiteko. Jarduera horretara gonbidatuko dira, baita ere, proiektuan parte hartzen dutenen enpresak eta lehen edizioan izandako emakumeak.

2018an ez bezala, aurten ikastaroan garrantzia emango zaie parte-hartzaileen, irakasleen eta irakasle edo coach nagusiaren iritziei. Berrikuntza moduan, topaketa informala eta hausnartzekoa egingo da parte-hartzaileen artean (Open Space), eta LinkedIn taldea sortuko dute lehen ediziokoekin, bi taldeak integrazearren eta parte-hartzaile guztiei batasuna ematearren, proiektuaren hedapenak guztion artean batu dezan.

Programaren amaieran, parte-hartzaileek ikastaroari buruzko txosten

exekutiboa hedatuko dute, eta haien ibilbide profesionalaren berri emango die bigarren batxilergoko ikasleei, gazte horiek etorkizunean zuzendaritza-karguetara iristeko aukera izan dezaten.

Informazio gehiago lortzeko eta izena emateko, sartu formación.ain.es orrialdean. Halaber, harremanetan jar daiteke [NIEn Prestakuntza](mailto:NIEn.Prestakuntza) eta Garapen arloarekin, 638168230 telefonora deituta edo epardo@ain.es helbidera e-maila bidalita.

2018ko Balantzea

"Femeninoan bultzatu" programaren lehen edizioa 2018ko azaroaren 6tik abenduaren 11ra bitarte egin zen, eta balantzea "oso gogobetekoa" izan zen, bertaratutakoen eta erakunde sustatzaileen arabera.

Era berean, 27 emakume profesionalak parte hartu zuten, Nafarroako ondorengo enpresetan zuzendaritza-postuak betetzen dituztenek: FS Estructuras S.L.P, Kamira Coop., Acciona Energía, Aguacanal, Zabala Innovation Consulting S.A, Smurfit Kappa, Tetra Consulting & Engineering S.L, Volkswagen Group Services, Grupo AN, Tracasa, Gureak, Iden Biotechnology S.L, Caja Rural, Mutua Navarra, Grupo VALdizarbe, Gurpea, Nucap Europe eta Ingeteam.